

Azaroaren 27ra arte ikusi ahalko da “Le projet Amateur” izeneko erakusketa Montehermosoko Jovellanos aretoan

Bihartik (ostirala) hasita azaroaren 27ra arte, “*Le Projet Amateur*” izeneko erakusketa ikusi ahalko da Montehermosoko Jovellanos aretoan; Arabako Argazkilarien Elkarteak Gauekoak gazte elkartearekin eta Montehermoso kulturunearekin batera sustatutako proiektu artistikoa da hori.

Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Estíbaliz Cantok, proiektuaren zuzendari eta Arte Grafikoetako graduatu Jon Gorospek eta parte hartzaileetako batek, Alejandro Sánchezek, aurkeztu dute erakusketa.

“*Le projet Amateur*” antigoalekoen denda batean topatutako familia album batetik sortu zen. Irudiek Frantzia hegoaldean eta Mediterraneoko kostaldean hirurogeiko hamarkadan egindako bidaiak eta aisialdi uneak jasotzen zituzten.

Edizio grafikoari buruzko fase teoriko baten ondoren, Jon Gorospek lantegi bat zuzendu du, zinean parte-hartzaileek editatze lana egin baitute, ikusizko kodeak baliatuz eta duela 50 urte gertatutakoak oinarritzat hartuz beste narrazio bat sortzeko.

Proiektuaren bidez, azken aldian puri-purian dagoen ideia batez hausnartzen da, alegia, besteren lanaz jabetzea eta egilearen disoluzioa, horrek irudiaren munduari buruzko eztabaida eta ikuspegi berriak sorrazten baititu.

Cantoren hitzetan, “*horrelako proiektuak bat datoz Udalaren helburuekin, hau da, tokiko artista eta taldeekin batera kultura garatu eta laguntzea.*”.

La sala Jovellanos de Montehermoso expondrá “Le projet Amateur” hasta el 27 de noviembre

Desde mañana viernes y hasta el próximo 27 de noviembre, la sala Jovellanos del Centro Cultural Montehermoso acogerá la exposición “*Le Projet Amateur*”, el resultado de un proyecto artístico promovido por la Sociedad Fotográfica Alavesa, en colaboración con la asociación juvenil Gauekoak y el Centro Cultural Montehermoso.

La exposición, la presentaban hoy la concejala de Cultura, Educación y Deporte, Estíbaliz Canto, el director del proyecto, el graduado en Artes Gráficas, Jon Gorospe, y Alejandro Sánchez, uno de los participantes.

“*Le projet Amateur*” surge a partir de un álbum familiar hallado en una tienda de antigüedades. Las imágenes, registraban momentos de ocio y diversos viajes por el sur de Francia y la costa mediterránea durante la década de los sesenta.

Tras una fase teórica sobre edición gráfica, se ha realizado un taller bajo la dirección de Jon Gorospe, a través del cual, las personas participantes han sido editoras que, por medio de códigos visuales, han formado una nueva narrativa utilizando los sucesos fotografiados ocurridos hace 50 años.

A través de este proyecto, se reflexiona sobre la idea de la apropiación y la disolución del autor tan en práctica en nuestra historia reciente, lo que genera discusión y nuevas miradas al mundo de la imagen.

Según Canto “*este tipo de proyectos, se enmarcan dentro de los objetivos que tenemos desde el Ayuntamiento, por apoyar y desarrollar cultura con artistas y colectivos del contexto local.*”.